

# la perfumería

de Mercadona

2021EKO UDA



MONOÏ  
POLINESIAKO  
OLIO  
SAKRATUA

UDAKO EGUN BAT





**Luminosidad**  
*Effect*

**Azala leun eta argitsu  
uzten duen gorputz-krema,  
lurrin-usain liluragarrikoa.**



# HYDRA

## *Ileriako krema*

*Ileri hidratazio-  
sentsazio atsegin  
bat ematen dion eta  
orrazterraz uzten  
duen erritua.*

# AURKIBIDEA

## EDERTASUNA ETA ONGIZATEA

### 06 Udako egun bat

Piknika familia-giroan, fruta- eta barazki-edariak ahoratuz bitaminak hartzea, *healthy* ohiturak berreskuratzea, aparteko eguzki-babesa, *beauty* zainketak eta, batez ere, dibertsio-dosi handiak. Eguzki-argitan *summer* egun batez gozatzeko prest?

### 08 Eguzki-babesa

### 12 Zein da zure gorputz-krema?

### 13 Helburua: agur zelulitisari

### 14 Zure aurpegi onena erakusteko *beauty* errutina

### 16 Elikadurak ere zaintzen du zure azala

### 18 Gizonezkoen aurpegia zaintzekoak

## AZKEN NOBEDADEA

### 20 Monoï

Udako esentzia exotikoa, halakoa da edizio mugatuko Monoï bilduma, zeinak tiare, ylang-ylang eta frangipani ukituak baititu, banillaren eta tonka babaren sentsualitatearekin batera.

## MANIKURAREN TARTEA

### 24 Neoi bizian

Kolore indartsu eta sutsuak dira nagusi uda honetako manikuretan. Arrosa, berde, hori eta laranja fluoreszenteak zure azal beltzarana nabarmentzeko. Uau!, efektu hori eragingo dute zure azazkalek denboraldi honetan.

## NOLA EGITEN DA?

### 28 Tako leuntzailea. Azazkal perfektuak izateko tresna

Produktu batek bide luzea egiten du ideia sortzen denetik apaletan jartzen den arte; proba, zuzenketa eta hobekuntza ugariko bidea izaten da. Azken produktuak itxaropen zorrotzenak betetzen dituenean amaitzen da saiakuntza-eta errakuntza-prozesu hori.



# 08

## DENBORALDIKO OINARRIZKOAK

### 30 Udako *hitak*

Murgil zaitetz ezinbestekoetan, zure nezeserrear izan beharreko TOP produktuak baitira. Kontuan hartu!

## MAKILLAJEAREN LURRALDEA

### 32 Sun Party

Eguzki-izpi epeletan inspiratutako makillaje-bilduma, bizitasunari gorazarre egiten diona; koloreek bete-betean konbinatzen dute, eta optimismo-dosi handia ematen dute.

Argitaratzailea: MERCADONA SA  
Fuente del Jarro industrialdea  
Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna /  
València Egilea: Ediciones ELCA  
Inprimatzailea: Rotocobrhi  
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.  
Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.  
© Aldizkariaren titularrak MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.





# UDAKO EGUN BAT



Piknika familia-giroan, fruta- eta barazki-edariak ahoratuz bitaminak hartzea, *healthy* ohiturak berreskuratzea, aparteko eguzki-babesa, *beauty* zainketak eta, batez ere, dibertsio-dosi handiak.

**Eguzki-argitan *summer* egun batez gozatzeko prest?**



**E**guzki-babesa urte osoan erabili behar da, baina udan arreta berezia jarri behar dugu gure gorputza zaintzen jarraitzeko. Edozein azal-mota duzula ere, zuretzako eguzkitako aproposa aurkituko duzu Mercadonaren Lurrindegian. Kontuan hartu, eta ez zaitez erre!

**Eguzkitako Solar espraia, 50+ faktorekoa**



**15 faktoreko ezpainetako eguzki-babesa**

Karite-gurina, E bitamina, ahuakate-olioa eta eguzki-iragazkiak ditu. Ezpainak hidratatu eta eguzkitik babesten ditu.

## Beta-karotenoazko KOKTELA


**Azal beltzaran polit eta osasuntsua izan nahi duzu uda honetan?**

Eman *plus* bat zure organismoari irabiaki zapoetsu eta elikagarri honekin, beta-karoteno ugari ditu eta.

Pertsona batentzat: likidotu kiwi bat eta 350 g azenario; nahastea ez oxidatzeko, gehitu hiru koilaratxo limoi-zuku. Ez baduzu zuku-makinarik, sartu irabiagailu elektrikoan osagai guztiak, eta gehitu 3 laranjaren zuku.







# Babestu haurren azala



Hareak, itsasoko urak eta igerilekuko urak eguzki-argi gehiegi islatzen dute, eta, horregatik, izpi ultramoreen eragina biderkatu egiten da. Toki horietan zaudenean, saiatu denbora-tarte batzuk itzaletan ematen, eta babes handiagoa eman haurrei.



Eman produktu-kantitate on bat eta ongi zabaldu, eta arreta berezia jarri eremu sentikorrei, errazago erretzen baitira; esate baterako, sudurra, oinbularrak eta belarriak.



Arroparekin eta osagarriekin ere babestu: txapela, eguzkitako betaurrekoak...



**BERRIA**  
50+ faktoreko Solar  
krema pediatrikoa,  
aurpegi eta  
gorputzerakoa

Haurrentzako  
Solar espraia,  
50+ faktorekoa



Haurrentzako  
Solar espraia,  
50+ faktorekoa



# Eguzkitarako Aholkuak



## GOMENDIO NAGUSIAK

- 1 **Urteko 365 egunetan** babestu, baita egun lainotsuetan edo itzalpean egoteko ere, eta bereziki udan.
- 2 Eguzkitan jarri baino **ordu-erdi lehenago** eman babesa, eta utzi xurgatzen.
- 3 **Eman berriz bi ordutik behin** eta bainatu edo izerditu ondoren.
- 4 Ez egon eguzkitan **12:00etatik 16:00ak bitartean**, eguzki-erradiazio handieneko orduak baitira.
- 5 Botikak hartzen ari bazara, kontuan hartu eguzkiari dagokionez kontraindikazioren bat duten.



## GOMENDATUTAKO KANTITATEAK

### 1 ETA 2 EREMUAK\*



1 hatz krema  
**EREMU BAKOITZEKO**



6 esprai-botaldi  
**EREMU BAKOITZEKO**

### 3-12 EREMUAK




2 hatz krema  
**EREMU BAKOITZEKO**



12 esprai-botaldi  
**EREMU BAKOITZEKO**

Zabaldu, modu homogineoan, babestu beharreko eremuan, eta utzi xurgatzen.

Kontuan izan bereziki sentikorrek diren eremuak (ezpainak, sudurra, belarriak, garondoa, sorbaldak eta oinak).



\* Eman aurrena eskuan, eta, gero, zabaldu aurpegiari eta lepoan.

## MITO FALTSUAK

**Eguzki-babesek balio dute hasi eta hurrengo urtean ere.**



Eguzki-kremak PAOren arabera arautzen dira: produktua ireki ostean propietateak zenbat denboran mantentzen diren adierazten du. Ontzi ireki baten irudia du, eta dagokion hilabete-kopurua.



**Maskarekin ez dago eguzki-babesen beharrik.**



Maskarek ez dute erabat galarazten eguzki-erradiazioa igarotzea; beraz, beti behar da babes-aurrepegian.



**Badira erradiazioaren % 100 blokeatzen duten "pantaila osoko" eguzki-babesak.**



Ez dago eguzki-erradiazioa erabat blokeatzeko gai den eguzki-babesik.

**Eguzki-babesa ematen badut, ez naiz beltzaran jarriko.**



Ez dago % 100eko babesik. Eguzki-krema eman arren, beti egongo da eguzki-erradiazio pixka bat melaninaren ekoizpena aktibatuko duena, eta melanina arduratzen da azalaren babes-sistema naturala aktibatzeaz eta beltzarantzeaz.

**Neguan eta egun lainotsuetan ez da eguzki-babesik behar.**



Hodeiek ez dute erabat galarazten erradiazio ultramorea pasatzea. Behar bezala babestu nahi badugu, urte osoan erabili behar dugu eguzki-babesa.

**Larruazal beltzaranak ez du eguzki-babesik behar, ez baita erretzen.**



Larruazal ilunenak errazago beltzarantzen dira, baina haiek ere jasaten dituzte eguzki-erradiazio gehiegizkoaren ondorio kaltegarriak.



**Eguzkitako Solar espraia, 30 faktorekoa**



**Bizkorrago beltzarantzeko Solar olio, 30 faktorekoa**

# Zein da zure gorputz-krema?

Desio duzun azala lortzeko, hasi zainduko duen produktu perfektua erabiltzen. Usain gozokoa, azalaren tonua igoko duena, elikatuko duena, distiraraziko duena, hidratatuko duena, sendotuko duena edo lasaituko duena...

Aurkitu zure azalak behar duen crema.



AQUA GEL-KREMA  
HIDRATATZAILEA

Testura ultrarina du, azkar xurgatzen da eta te berdearen eta pomeloaren estraktu naturalak ditu, zeinek azala hidratatzen eta freskatzen baitute.



ALOE VERA  
LOZIOA

Hidratatu eta leheneratu egiten du.



BRONZ  
EFFECT LOZIOA

Pixkanaka beltzarantzearen efektua ematen duen gorputz-hidratatzailea. Eman eta 3-4 egunera ikusten da emaitza.



HYDRA  
& GO LOZIOA

Bere usain fresko eta bizizalea perfektua da hilabete beroenatarako. Hidratazio berehalakoa eta praktikoa, esprai-formatuari esker.

# Helburua: agur ZELULITISARI

## Kontzentratu Meso-antizelulitiko


gorputz-tratamendu intentsibo bat da, zelulitisa prebenitzen eta azalaren itxura hobetzen duena. Mesoterapiari inspiratua, ekintza hirukoitza du (lipolitikoa, berregituratzailea eta murriztailea) likidoak drainatzen, koipe-metaketa eragozten eta zelulitisaren aurka jarduten baitu, eta laranja-azala murrizten du.

**BERRIA:** Formatua aldatu da; bialaren tapoia praktikoa da, behin ireki ondoren, itxi eta buruz behera uzteko balio baitu, hurrengo ematen den arte.



## Egin 15 minutu ariketa egunean

Egin kasu errutina espress honi; konstantziak eta jarrerak gorputza indartzen lagunduko dizue, aktibo eta osasuntsu mantenduko zara, eta emaitzak nabarituko dituzu.




### PLANTXA

Ipini ahoz behera, gorputza zuzen, gluteoak eta abdomena estutuz. Jarri besaurreak irmo lurrean, eta eutsi gorputzari zuzen 45 segundoz.

### URRATSAK

Hasi oinak elkarren ondoan dituzula, bizkarra zuzen eta belauak aldakekin eta orkatilekin lerrokatuta. Aurreratu eskuineko hanka eta jaitsi ezkerrekoa (atzekoa) belaua tolestuz, ia zorua ukitu arte. Igo eta jaitsi; errepikatu beste hankarekin.



Errepikatu ariketa bakoitza **5 aldiz 3 serietan** poliki eta kontzienteki, muskulua lanean ari dela nabarituz. Egin gutxienez **astean 5 egunez**, inbertsio onena izango dira 15 minutu horiek!

### ALDAKA ETA HANKA BAT ALTXATZEA

Etzan bizkarraren gainean, belauak tolestuta dituzula eta oinak lurrean, aldaken zabaleran. Altxatu hanka bat lurretik eta luzatu gorantz. Uzkurtu gluteoak eta abdomena, igo aldakak eta jaitsi berriro; errepikatu beste hankarekin.



### ERABILTZEKO MODUA

Eman masaje batez, guztiz xurgatu arte. Egunean bial bat erabil dezakezu, tratamendu intentsibo gisa. Edo tanta batzuk zure ohiko kremarekin nahas ditzakezu, mantentze-tratamendu gisa.



### BESO-FLEXIOAK

Eseri lurrean, aulki edo banku bati bizkarra emanaz. Tolestu besoak eta jarri eskuak aulkiaren gainean, sorbalden zabaleran. Luzatu besoak poliki; altxatu gorputza eta jaitsi berriro.

### SENTADILLAK

Zabaldtu hankak aldakak baino zabalago, eta eraman gluteoa atzera eta behera. Itzuli hasierako posizioa.

# Zure aurpegirik onena erakusteko *beauty* errutina

Arroparen armairua aldatu ohi dugu urtaro berriaren etorrerarekin, bai eta apain-mahaia ere... Azala ez da berdin egoten urteko hilabete hotz eta beroetan. Beroa datorrenean, azalak testura arinagoko produktuak eskatzen ditu.



**Hidrata Azido Hialuroniko Kontzentratua**

## EDERTASUN-AKTIBATZAILEA

Azala garbi duzula eman **Hidrata Azido Hialuroniko Kontzentratua**. Haren formulak itxura fresko, distiratsu eta berritua ematen die azal zailenei eta hidratazioa behar dutenei. Haren printzipio aktiboetako batek, PhytoCellTec TM, zeina sagarraren zelula ametan oinarrituta baitago, zimurrak leuntzen ditu egunero erabilita. *Aloe verak*, era berean, ongi hidratatzen du azala, eta pantenolak leheneratzen laguntzen dio.

**Zimurrak betetzeko ahalmenagatik da ezaguna azido hialuronikoa.** Kremetan edo anpoiletan erabilita eragin hidratatzaileagoa du, ura azaleko zeluletan atxikitzen baitu.

## 3 BATEAN

Eman zure azalari **plus bat garbiketa sakonean, argitasunean, hidratazioan...**

Edo, hobeto, guztia batera, kosmetiko bakar batean.



**Buztin Zuria Mask Garbitzaile Esfoliatzailea**

## HONELA JARDUTEN DU...

Sakon garbitu eta biziki argitzen du, poroak fintzen ditu, azala matetzen du lehortu gabe, eta hidratazio-gehigarria ematen du. Buztin zuria eta esfoliatzaile naturalak dituen konplexu aktibo bat da. Garbigarri gisa, esfoliatzaile gisa eta maskara gisa erabil daiteke.

- ✓ **Garbigarri** gisa. Eman aurpegi hezearen gainean eta irakuzi ur epelarekin.
- ✓ **Esfoliatzaile** gisa. Eman masajea mugimendu zirkularrak eginez 3 minutuz, eta kendu produktua ur epel ugarirekin. Erabilera: astean behin edo birritan.
- ✓ **Maskara** gisa. Eman geruza uniforme bat aurpegi garbiaren gainean, eta utzi 20 minutuz. Kendu urarekin.

## 24 ORDUKO HIDRATAZIOA

Eta boosterraren eta/edo serumaren ondoren? Hidratatu.

### Hidrata Cream 24 h Testura

**Aberatsa**, azal-mota guztietarako egokia.

Belaunaldi berriko azido hialuronikoaren eta landare-agenteen kontzentrazio altua du, azalari hidratazio iraunkorra emateko.

**Azal hidratatu, leun, sendo eta elastikoa.**



**Hidrata Cream 24 h  
Testura Aberatsa**

Eman egunez eta gauez aurpegian, lepoan eta bularraldean masaje leun batez, erabat xurgatu arte.



## AZAL DISTIRATSUA 5 MINUTUAN

Bazenekien edertasun-produktuen ekintza indartu eta areagotu dezakezula zure eskuei esker?

Aurpegiko masaje on bat eragingarria izango zaizu. Azalak eskertuko dizu.



## AURPEGIKO MASAJEAREN ONURAK

- ✓ Kosmetikoa hobeto sartzen da azalean.
- ✓ Erlaxazio muskularrari laguntzen dio.
- ✓ Tinkotasuna ematen dio azalari.
- ✓ Larruazaleko mikrozikulazioa hobetzen du, eta azalaren tonua bateratzen.
- ✓ Azala tonifikatzen du.



## ELIKADURAK ERE ZAINZEN DU ZURE AZALA

**A**zala garbi, zikinkeriarik gabe eta hidratatuta edukitzea da azala zaintzearen *gakoa*. Baina, areago, garrantzitsua da zer jaten dugun ere: azala elikatu eta babestuko duten konposatuak emango dizkion elikadura osasuntsu bat.



## HEALTHY ENTSALADA

Dastatu **entsalada koloreaniztun** bat, frutez, barazkiez, barrengorritz eta zerealez egina, bitamina, mineral, zuntz eta antioxidatzailetan aberatsa.

- ✓ Kolore **berdea**, 250 g erromatar urazarekin eta alkatxofa-bihotzekin.
- ✓ **Horia**, arto gozoaren lata batekin.
- ✓ **Laranja**, 250 g papaia freskorekin, laukitxotan ebakia.
- ✓ **Gorria**, 100 g errefautxorekin, xafla finetan ebakita.
- ✓ **Zuria**, 100 g barrengorrirekin, xaflatan.
- ✓ Eta **urdina**, 100 g ahabirekin.

Ondu guztia oliba-olio birjina estraren, limoi-zukuaren eta martorriaren ozpin-olioarekin, unean bertan ehotako piperbeltz beltzarekin, gatz-ekatekin eta ekilore-hazi naturalekin.





## Udako urak

**Egunean 1,5-2 litro ur edan behar ditugu** eta batez ere hilabete beroenetan.

### Zertarako?

Hidratatuta egoteko, **toxinak kanporatzen** eta **gorputzaren tenperatura erregulatzen laguntzen digulako**.

Uraz gainera, beste aukera batzuk ere badituzu, besteak beste, infusioak eta zaporedun urak; har itzazu izotz pixka batekin eta baliatu haien onurez. Osasungarriak eta arinak dira, eta ukitu desberdina dute.

Klasikoa: **ur-limoia**. Koloreduna: **ura eta fruitu gorriak**.

Zuzenean bertatik edateko diseinatuta dago botila; hondartzara eta igerilekura eraman dezakezu.

## Zure piknika eltxorik gabe...



**Citronela eskumuturrekoak** (S eta L tamainak), 2 asteko iraupena, haren lurrin-usainak eltxoak uxatzen ditu.



**Eltxoek zitronela-kandela**

Gozatu udaz zitzaden beldurrik gabe.

**Eltxoek kontrako hesi-intsektizida, etxerako eta kanporako**





1

Gizonezkoen aurpegia zaintzeko errituala urrats erraz hauekin hasten da

## FUNTSEZKOA GARBITZEA

**Men Care Vital Gel Garbitzaileak** garbitu eta purifikatu egiten du. Gel-testura freskoko eta erraz kentzekoa denez, zikinkeria kentzen laguntzen du azala lehortu gabe. Banbu-estraktua –eragin antioxidatzailea– eta kreatina ditu; azala baretzen laguntzen duten osagaiak.

### NOLA EMAN

Busti aurpegia eta eman gel-kantitate txiki bat mugimendu leunen bidez; jarraian, kendu urarekin. Erabili egunez eta gauzez.



2

## ESFOLIATU BAI ALA EZ?

Gure azaleko zelulak berez berriztaten dira hilean behin gutxi gorabehera, baina ona da prozesu horretan laguntzea. **Men Care Vital Esfoliatzailea** ikatz aktiboa eta arroka bolkanikoen mikroesferak dituen gel garbitzaile bat da, eta zikinkeriak eta zelula hilak kentzen ditu. Gainera destoxifikatu egiten du, poroak libratzen ditu eta gehiegizko koipea kentzen du.

### NOLA EMAN

Astean behin edo birritan, ahal izanez gero bizarra moztu aurretik. Azal-mota guztietarako da egokia.

## 3 HIDRATATZEA

Aurpegia zaintzeko errutinan, eguneroko garbiketa eta hidratazioa ezinbestekoak dira. **Men Care Vital Gel Crema Indargarri Hidratatzailea** azal nekatuetarako diseinatuta dago. B3 bitaminaren, estraktu mineral aktiboaren eta alga-estraktuen konbinazioak azala suspertzen du, eta elastikotasuna itzularazten. Hidratatu eta freskotasuna ematen du, eta nekearen eta estres oxidatiboaren zantzuen aurka egiten laguntzen du. Zimurrak murrizten laguntzen du ohiz erabilita.

### NOLA EMAN

Goizero eta/edo gauero azal garbian, edo azala itzalita ageri denean energia-gehirri bat emateko.

# SUMMER

*Geruza bat eta listo*



Manikura bizkorra,  
kolorez betea.



# monoi

Udako esentzia exotikoa, halakoa da edizio mugatuko Monoï bilduma, zeinak tiare, ylang-ylang eta frangipani ukituak baititu, banillaren eta tonka babaren sentzualitatearekin batera.





## Hitz egin dezagun monoïari eta haren bertuteei buruz...

Tahitiko monoïa elaborazio tradizionalako aparteko olio bat da, kalitate handikoa, jatorri-deitura duena eta propietate bikainekoa.



MONOÏ HITZAK OLIO SAKRATUA EDO OLIO PERFUMATUA ESAN NAHI DU MAHOI HIZKUNTZAN

Ezagunak dira monoïaren erabilera eta propietate ugariak. Monoïa lortzen da tiaré-loreak (Tahití uhartekoak, Polinesia Frantsesa) mazeratuta eta koko-mamiaren olioarekin konbinatuta.

Eguzkiak, haizeak eta itsasoko kresalak eragindako azal **lehorra leundu eta baretzen du koko-olioak**. **Tiaré-loreak usain gozoagatik dira ezagunak.**

**Bi osagai horiek konbinatuta monoï bikaina lortzen da. Azalerako eta ilerako onurak ditu. Zentzumenak esnatzen ditu gainera.**

**Haren lurrinak toki exotiko batera bidaiatzeko gogo pizten dizu; Polinesia Frantsesera zaramatza zuzenean, handik baitator berebiziko osagai hori.**



**Ile-maskara UVA/UVB iragazkiarekin.** Sakon elikatu eta hidratatzen du ilea, eta eguzkiak, kloroak eta kresalak eragiten dituzten kalteetatik babesten. 3 batean: egokitzailera, urarekin kentzeko maskara eta ilean uzteko maskara.



**Xanpua** ilea garbitzen, hidratatzen eta zaintzen du eguzkitan egon ostean. Lortu ile leuna, eta areagotu berezko distira.



## EDERTASUNERAKO aholkua



Eman ile-maskara erdialdetik puntetara, eta utzi 15-20 minutuz eragiten ilea garbitu aurretik.

**Adats distiratsua nola lortu?**

**Bildu ilea toalla heze batean (ur beroarekin hezea) maskarak bere lana egiten duen bitartean.**

# MONOÏ PROPIETATE NAGUSIAK

**Egokitzaile bifasikoa, ilea eguzkitik babesten duena.** Ile hezean edo lehorrean eman daiteke. Adatsa zaindu eta solte eta leun uzten du.



**1** Azala **hidratatu**, elikatu eta babesten du.

**6** Ile lehor eta kaltetua elikatzen, sendatzen eta leheneratzen du.

**2** Beltzaran-kolorea areagotzen du, kolore naturala eta iraunkorra emanez.

**7** Kresaletik, klorotik eta eguzki-izpietatik babesten du ilea, zuntz kapilarrak deshidratatzea eta apurtzea saihesten baitu.


**3** Haren usain gozoak eta lasaitzeko eta suspertzeko **ahalmenak** ongizate atsegina ematen dute, eta gorputza eta burua baretzen.

**8** Leuntasuna, gozotasuna eta **distira** osasuntsua ematen dio ileari.

**4** E bitaminatan aberatsa denez **antioxidatzaile indartsua da**, eta erradikal askeen aurka laguntzen du, zeinak zahartze goiztiarraren arrazoi nagusia baitira.

**9** Aliatu perfektua masajea egiteko, **muskuluak eta azala baretzen laguntzen du.**

**5** Azala pixkanaka hezeten laguntzen du, ura galtzea galarazten duen babes-geruza bat sortuz.



MONOÏ-OLIOA PERFEKTUA DA EGUZKITAN EGON ONDOREN AZALA BERE ONERA EKARTZEKO.

## *Eta gainera*

- ✓ Zaindu zure azala gauez, eman gorputz-oliozko geruza fin bat, eta, hurrengo goizean, hidratatuta, leun eta argitsu izango duzu azala.

### **Gorputzerako olio hidratatzailea.**

Hezetasuna atxikitzen du, gantz-azidotan aberatsa da eta azala baretzen du. Ez ditu poroak buxatzen.



## AZKEN NOBEDADEA

**Bainurako gela**  
usain gozo  
iraunkorrekoa.



**Gorputzerako krema hidratatzailea, sorbete-testurakoa.**  
Arina eta freskagarria da eta bizkor xurgatzen da; udako hilabeteetarako ezin hobea.



**Body spray desodorantea,**  
usain gozo  
iraunkorrekoa.



**15 faktoreko eguzki-olioa,**  
bizkorrago  
beltzarantzekoa eta  
ukitu lehorrekoa.

Usain gozo bera dute  
Monoï bildumako  
produktu guztiek

**Ezin tentagariago!**



Eau de toilette  
**Fleur de Tiaré**



Liluratu zure burua **Monoï Fleur de Tiaré** lurrinarekin, eman eskumuturretan, lepoan edo ilean, egun guztian izan dezazun zurekin.



# NEOI BIZIAN

Kolore indartsu eta sutsuak dira nagusi uda honetako manikuretan. Arrosa, berde, hori eta laranja fluoreszenteak zure azal beltzarana nabarmentzeko. Uau!, efektu hori eragingo dute zure azazkalek denboraldi honetan.

Modeloak **Neón bildumako 987 zk.-ko azazkal-esmalte horia** darama.




Neoi-tonuak txundigarriak eta dibertigarriak dira; udarako *must* bat. Ausartu esku eta oinetan eramatera. Liluragarriak!



984 zk.-ko Neón azazkal-esmalte laranja





## Manikurako eta pedikurako aholkuak

- 1 Erabili oinarri bat azazkal naturala babesteko eta manikurak eta pedikurak gehiago irauteko.
- 2 Hidratatu egunero kutikulak eta esku eta oinetako azala, perfektu edukitzeko hondartzan eta igerilekuan.



986 zk.-ko Neón azazkal-esmalte berdea



985 zk.-ko Neón  
azazkal-esmalte arrosa

## Bazenekien...?

**M**anikura on baten koloreek gure aldarlean eragin dezakete. Eta hor bai, azazkal-esmalteei eta joerei dagokienez, zerrenda amaigabea da. Atzean utzi ditugu neguko kolore ilunak, eta gama kromatiko fresko batera igaroko gara, eguraldi onerako aproposa. Aurtengo udan azazkalak margotzeko irrikan izango gara.

# AZAZKAL PERFEKTUAK IZATEKO TRESNA

**P**roduktu batek bide luzea egiten du ideia sortzen denetik apaletan jartzen den arte; proba, zuzenketa eta hobekuntza ugariko bidea izaten da. Azken produktuak itxaropen zorrotzenak betetzen dituenean amaitzen da prozesu hori.

## 1 Ikertzeko garaia!

Ikertzeari ekingo dio edertasuneko **espezialistak** (bezeroen beharrak jaso eta definitzeaz arduratzen den pertsona; soluzio onena bilatzen duena beti) entzuten duenean bezeroak azazkalak hobeto zaindu nahi dituela.

**Azazkal naturalei distira handiena emateko gai den tresna bilatzen du.** Profesionala dirudien akabera lortu behar da etxean.



## 2 Entzute aktiboa

Hurrengo urratsa **bezeroekin hitz egitea** da, zer behar duten ulertzeko. Merkatuan zer aukera dauden eta nola hobetu daitezkeen ikusi behar da bidean.




## 3 Nola sortu tresna perfektua?

Hornitzaileak, informazio guztia dutenean, ereduak egiten has daitezke. Prozesuko une dibertigarriena da. **Pixkanaka, zenbait prototipo eta laginekin, tako leuntzailea forma hartzen hasten da.**

Lehenengo bi aukerak (bata txikia eta maneiagarria eta bestea errektangularra eta distira emateko aukerarik gabea) baztertu egin ziren bezeroekin egindako aurrez aurreko saioetan.

## 4 Input-fasea


**Materialak** doitzen dira: eba, hondar-ale lodiak, finak, ultrafinak... Berriro ere bezeroen epaiaren zain geratzen dira.



## 5 Proba-aretoan zalantzak sortzen dira

- ✓ Zer errutina da egokiena?
- ✓ Leundu egin behar dugu lehenengo ala distira eman?

**Orduan zenbakiak jartzen zaizkie takoaren aurpegiei**, azazkal distiratsua emango dituen emaitza bermatzeko.



## 6 Iritsi da supermerkatu

Behin betiko produktua erabaki ondoren, hautatutako supermerkatu jakin batzuetan jartzen da, erreakzioak ikusteko. Helmugatik gertu, kaxa erakuslea ez dago hain agerian. Beraz, azken aldaketak egiten ditugu, bezeroek espero dutena bete eta kaxa erakargarriagoa izan dadin. Irudi-aldaketa ikusgarri bat egin ostean (telebista-programa batean agertzeko modukoa), azken *packaginga* diseinatzerara iristen gara. Hala, tako leuntzailea denda guztietara iristen hasten da.

## 7 Etengabeko hobekuntza

Lana amaitu dela dirudien arren, hurrengo fasera pasatu behar da. **Etengabeko hobekuntza-prozesu bat hasten da lurrindegiko langileek, bezero-arretako zerbitzuak eta sare sozialetako kudeatzaileek jasotako iruzkinei esker.**



# Udako HITAK

## Gel esfoliatzailea

Zelula hilak kendu, eta azala leun, garbi eta argitsu uzten du. Azal hezearen gainean ematen da masaje zirkular batez, eta eremu zimurtsuenetan (ukondoak, belanak...) denbora gehiagoan.



## Mentoldun esprai freskagarria

Oin eta hanketako pisua eta nekea arindu, lasaitu eta freskatzeko dituzten hilabete beroenetan.



## Ziztadak arintzeko roll-ona

Intsektuek, marmokek eta asunek eragindako ziztadak eta erresumina baretzen du. Mentola eta Aloe vera ditu; unean bertan lasaitu eta freskatzeko duten osagaiak.



## Citronela body spraya



Murgil zaitez ezinbestekoetan, zure nezeserrearantz izan beharreko TOP produktuak baitira.  
Gogoan hartzeko prest?

### Pintza zeiharra

Ile bihurrienak kentzeko diseinatutako depilatzeko pintza; zehaztasun handiagoa ematen du bekainei forma emateko garaian.

### Bekainetarako pintza zuzena

Depilazio onena lortzeko, tiratu leun ilea hazten den noranzko berean, sustraitik ahalik eta gertuena, ez apurtzeko.

### Aurpegirako Solar fluidoa, 50+ faktorekoa, adinaren aurkakoa.

Zimur-contrako onena urteko 365 egunetan aurpegi-babesa erabiltzea da; ez udan bakarrik.

### Azazkal-leungailua

4 aurpegiko tako leuntzailea perfektua da azazkalak limatu eta forma emateko, berdintzeko, leuntzeko eta, azkenik, distira ateratzeko.



### AHOLKUA

Komeni da erabileran bakoitzaren ondoren pintza alkohol pixka batekin garbitzea eta lehortzea. Ez da deformatuko eta doitasunik ez du galduko.







# Sun party


Eguzki-izpi epeletan inspiratutako makillaje-bilduma, bizitasunari gorazarre egiten diona; koloreek bete-betean konbinatzen dute, eta optimismo-dosi handia ematen dute.

**Eskuineko modelook hau darama:**

Make Up Fixer, Sun Party paletako 05, 08 eta 10 itzalak. Lip Tint Marker 02 zk.-koa eta Panoramic Maskara; guztia Sun Party bildumakoa.


**Ezkerreko modelook hau darama:**

Make Up Fixer, 02 argitzailea eta 04, 05, 06, 08 eta 10 itzalak, Sun Party paletakoak. Ezpainetan, Lip Tint Marker 01 zk.-koa eta Panoramic Maskara; guztia Sun Party bildumakoa. *Eyelin*er beltza eta, kolorete gisa, Eguzki-hautsak.



**Makillaje hau lortzeko...**

Make Up Fixer, 02 argitzailea eta 04, 05, 06, 08 eta 10 itzalak, Sun Party paletakoak. Ezpainetan, Lip Tint Marker 01 zk.-koa, eta, betileetan, Panoramic Maskara; guztia Sun Party bildumakoa. Eyeliner beltza eta, kolorete gisa, Eguzki-hautsak.



Zure  
**AZAZKALETARAKO**  
**TRATAMENDUA**

Azazkalak koloretsu nahi ditugu, baina, lehenengo, ondo zaintzen ikasi behar dugu. Nola?

Gel Elikagarria erabiliz (papaia-estraktua du, eta A bitaminatan aberatsa da) eta Gel Antioxidatzailea erabiliz (B eta C bitaminatan aberatsa den starfruit extract konplexua du, eta propietate antioxidatzaileak). Eman egunero azazkal eta kutikuletan, xurgatu arte masajea ginez.

**FINKATU eta ARGITU**

➔ Makillajea finkatu eta efektu argitsua ematen duen espraia probatzeko prest?

Azala hidratatuta mantentzen eta makillajea finkatzen duen esprai tonikoa. Ez dio kolorerik ematen azalari, perla du, eta asko gustatuko zaizu haren usaina, arrosa zuriena.

**Erabiltzeko aholkuak**


- ✓ Astindu erabili aurretik.
- ✓ Lainoztatu kantitate txiki bat aurpegitik 20 cm-ra.
- ✓ Eta utzi lehortzen.
- ✓ Makillajearen aurretik erabil daiteke hidratatzaile/primer gisa, ondoren finkatzaile gisa edo egunean zehar azalak argitasuna berreskura dezan.




Make Up Fixer



Gel  
**Antioxidatzailea,**  
989 zk.



Gel  
**Elikagarria,**  
988 zk.



## ↓ BOOM! BETILE SEXIAK

Denboraldiko *lookeko* protagonistak dira betileak. Oso kurbatuak eramaten dira orain.

Hona hemen harro egoteko moduko betileak lortzeko aholku batzuk:



Betileetarako Seruma

1 Lehenik eta behin zaindu egin behar dira. Olio-testurako **Sun Party Betileetarako Serumak** haien leuntasuna eta sendotasuna berreskuratzen laguntzen du, bere formulak egunero elikatuko baititu. Argan-olioa du, propietate elikagarri, antioxidatzaile eta emolienteengatik ezaguna; eta alga gorriaren estraktua ere badu, aminoazido eta mineraletan aberatsa, betileak babestu eta indartzen dituena. Erabilera jarraituarekin betile eta bekain polit eta osasuntsuak lortzen laguntzen du.

### AHOLKUA

Eman seruma, maskararen aurretik, eta utzi maskarari lehortzen. Edo, gauean, makillajea kendu ondoren.



**Hau darama modeloak:** Make Up Fixer, Sun Party paletako 05, 08 eta 10 itzalak. Lip Tint Marker 02 zk.-koa eta, betileetan, Seruma eta Panoramic Maskara; guztia Sun Party bildumakoa.

2 Gero makillatu egin behar dira, begirada ireki eta argitzeko. Luzatu, kakotu eta eman bolumena goiko betileei **Sun Party Panoramic Maskararekin**. Adi! Beheko betileak makillatu gabe eramaten dira. Eskuilak betileak erraz altxatu eta kizkurtzen laguntzen du, eta definizio panoramiko eta akabera beltz mate bizia ematen die.



Panoramic Maskara



## EZAGUTZEN DUZU *SUN KISSED* MAKILLAJEA?

Look diskretua,  
baina ederki ematen duena.

Aurpegi beltzarana, masail gorrixka eta distiratsuak; "aurpegi ona"ren efektua ematen du, eta lur- eta urre-tonuak ematen dizkie aurpegiari eta begiei.

Halako makillajea lortu nahi baduzu, **Itzalen eta argitzaileen Sun Party paleta** da zure aliatua. Zortzi begi-itzal ditu akabera matekoak, satinatuak eta perla-itxurakoak; 2 argitzaile aurpegiari argi-ukituak emateko, eta ispilu eroso bat nonahi zaudela makillatzeko edo ukituren bat emateko.



Itzalen eta argitzaileen paleta

## Maisu-ukitua

Nabarmendu aurpegiko eremu batzuk; esate baterako, sudurra, ezpainak, masailboen goiko aldea edo betazalak –bekainen azpitik, arku argitzeko–, eta larruzala distiratsu eta mamitsu ikusiko da, eguzkiak musukatu izan balu bezala.

### Makillaje hau lortzeko...

Make Up Fixer, 01 argitzailea eta 04, 05, 06 eta 09 itzalak, Sun Party paletakoak. Ezpainetan, Lip Tint Marker 03 zk.-koa, eta, betileetan, Seruma eta Panoramic Maskara; guztia Sun Party bildumakoa. Eyeliner beltza eta, kolorete gisa, Eguzki-hautsak.



Azal beltzarana, eguzkiak musukatu izan balu bezalako,  
begirada argia eta ezpain koloretsuak.  
Nabarmendu, uda dator eta!





## TINDATU EZPAINAK



**Lip Tint Marker** ezpainerako errotuladore berria da, erosotasun handikoa. Bere formula arinak kolorez tindatzen ditu ezpainak. Doitasun handiko puntari eta testura emolienteari esker, ezpainak erraz makillatzen dira. Iraupen luzeko eta akabera argitsuko kolore modulagarri batez profilatzen eta betetzen ditu ezpainak.

**Lip Tint Marker**

### **ZAINTEKO ETA MAKILLAJEA KENTZEKO AHOLKUAK**

- Mantendu posizio horizontalean edo bertikalean, puntara produktu gehiegi ez joateko.
- Makillajea kentzeko, erabili bifasikoa eta/edo esfoliazio arin bat ezpaineran.

### **Makillaje hau lortzeko...**

Make Up Fixer, Sun Party paletako 05, 06 eta 09 itzalak. Ezpaineran, Lip Tint Marker 03 zk.-koa, eta, betileetan, Seruma eta Panoramic Maskara; guztia Sun Party bildumakoa. Eyeliner marroia eta Eguzki-hauts iluna.





**BEHIN  
ERABILTZEKO  
BAINUJANTZIA**





**PRECISION  
SYSTEM**



Banda bikoitz lubrifikatzailea

Diseinu ergonomikoko heldulekua

6 orri + doitasun-orri bat atzealdean, eremu zailtarako

Buru baskulagarria eta pibotatzailea, erosotasuna areagotzeko

